Bergarako Udala

Zk./ Nº 2026/2332

Data / Fecha 2026/10/20

Dekretua

Esp. zk.: 2026BLIZ0004

Gorka Artola Alberdi jaunak, Bergarako Udaleko Alkateak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.1 atalean xedatutakoaren arabera, gaia aztertu eta ebazpena eman dut.

Zerbitzu Orokorretako eta Kontratazioko Teknikariak, 1372/1986 Errege Dekretuko 75.1.b) eta 77.2 artikuluetan oinarrituta, 2027. urtean jarraian zehaztutako jarduerak aurrera eramateko lurzoru publikoa okupatzeko baimenak zozketa bidez esleitzea dagokiola adierazi du:

- Txurroak ibilgailuarekin saltzea. Esp.: 2026BLIZ0005
- Ogitartekoak, patata eta antzekoak saltzea furgoneta edo antzeko ibilgailuekin. Esp.: 2026BLIZ0004.
- Nagusiki 2-10 urte bitarteko adingabeei zuzendutako feria instalatzea. Esp.: 2026BLIZ0003

Horiek horrela izanda, **ERABAKI DUT:**

LEHENENGOA: Lurzoru publikoa okupatzeko baimenak emateko deialdiak egitea eta hartara proposatutako oinarri arautzaileak eta inprimakiak onartzea (Esp. Zk.a.: 2026BLIZ0003, 2026BLIZ0004, eta 2026BLIZ0005).

BIGARRENA: Erabakiaren berri ematea udaleko web-orrian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Erabakiaren aurkako errekurtsoak:

Erabaki hau finkoa da eta amaiera eman dio administrazio-bideari.

Honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa edo administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daitezke.

a) Auzitara jo aurretik, eskatzaileak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertzeko errekurtsoa aurkez dezake, 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena):

- Epea: Hilabete bat, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

- Non: Alkatetzara jo behar da.

b) Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake zuzen-zuzenean, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 25. eta 46. artikuluetan agintzen denaren ildotik:

- Epea: Bi hilabete, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

- Non: Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.

c) Berraztertze errekurtsoaren erantzunaren aurka jotzeko:

- Epea: Bi hilabete, berraztertze errekurtsoaren erantzunaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

ESKUab8bfda5-4f6a-402c-84aa-87983dfa65c3

Bergarako Udala

Aldiz, administrazioak berraztertze errekurtsoa erantzun gabe utziko balu, interesdunak edozein momentutan aurkeztu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, berariazko araudiaren arabera presuntziozko ekintza gertatu den biharamunetik aurrera.

- Non: Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.

Honela jasota gera dadin eta behar diren ondorioetarako, Alkateak agindu eta izenpetzen du eta nik, Idazkariak, ziurtatzen dut, Bergaran, dekretuaren datan.